

**BASAURIKO UDALAK 2025EKO SANFAUSTOETAKO KARTELA AUKERATZEKO ANTOLATUTAKO
LEHIAKETA**

1.- Lanak bastidorearen gainean edo luma-kartoian muntatuta aurkeztuko dira, eta ez dute beirarik izango. 70 cm-ko altuera eta 50 cm-ko zabalera izango dute.

Gainera, egileak obraren kopia bat erantsiko du formatu digitalean, 300 ppp-ko gutxieneko bereizmenarekin eta 50 x 70 cm-ko neurriarekin, eskaera telematikoarekin batera edo CD edo USB kopia bat aurkeztuz.

2.- Gaia artistak hautatuko du, baina iragarri nahi diren jaiekin harremana izan beharko du. Lanean ezingo da jarrera homofoboaren, xenofoboaren, ez hizkera, irudi edo eduki sexistaren publizitatea edo horiek bultzatzea bilatuko duen erreferentziarik egin, eta ezingo da animalien aurkako tratu txarrak eta alkoholaren edo tabakoaren kontsumoa sustatu. Hori guztia Udalak gaiari buruz onartutako araudiarekin bat. Ildo horri jarraiki, Epaimahai Kalifikatzaileak araudiaren kontra doazen kartelak lehiaketatik kanpo utzi ahal izango ditu.

3.- Kartelek **Basauriko logoa** eta honako testu hau izan beharko dute:

**SAN FAUSTO 2025
BASAURI
Urriak 11-19 Octubre**

4.- Lanak jatorrizkoak izango dira. Egile bakoitzeko lan bat baino ez da onartuko.

5.- Epaimahaiak jaiak iragartzeko hautatzen duen kartelaren egileari 1.500,00 euroko saria emango zaio, eta 300,00 euroko akzesita udalerriko diseinurik onenari. (aurrekontu-partida: 2025 102.3382.48099 - T. A. familientzat. JAIK)

Sari horiek ezingo dira metatu, eta legez xedatutako atxikipenak izango dituzte. Indarreko legeria betetzeko, gainera, sariei dagokion PFEZ atxikipena aplikatuko zaie.

6.- Epaimahaiak lehiaketa hutsik utzi ahalko du, aurkeztutako lanek gutxieneko maila artistikorik ez dutela jotzen badu, edo ustekabeko zein ohiz kanpoko gorabeherak lehiaketa ez egitea gomendatzen badute.

7.- Lanak Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkeztuko dira, lanegunetan, 08:00etatik 14:00etara, 2025eko uztailaren 5tik irailaren 5era bitartean.

8.- Kartelen atzealdean eta erantsiko den gutunazalaren kanpoaldean lanaren leloa idatziko da. Aipatu gutunazalaren barrualdean, berriz, egilearen izena-abizenak, helbidea eta telefonoa jasoko dira.

9.- Epaimahaiak honako kideek osatuko dute:

EPAIMAHAIBURUA Alkatea edo hark eskuordetutako zinegotzia

EPAIMAHAIKIDEAK Alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bana
Herriko Taldearen bi ordezkari
2 artista edo alorreko teknikari

IDAZKARIA Kultura Ataleko udal funtzionario bat

Epaimahaian emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzeko ahaleginak egingo dira sexu bakoitzeko pertsonak ordezkatzuta egon daitezzen. Gainera, Basauriko Udalak dagokion neurriak hartuko ditu kartelaren proposamenak baloratzeko prozesuan genero-ikuspegia txertatzeko gaitasuna edo prestakuntza duten pertsonak epaimahaian parte har dezaten. Horretarako, Udaleko berdintasun Arloak dekalogo bat eskuragarri jarriko du, hautaketa-prozesuan genero ikuspegiko irizpideak bilduko dituen.

10.- Epaimahaia udaletxean bilduko da 2025eko irailaren 12an, 10:00etan, kartel irabazlea eta akzesita aukeratzeko. Epaia apelaezina izango da.

11.- Aurkeztutako lan bakoitzeko egiaztagiri bat emango da, eta, kartela saritua izan ez bada, egiaztagiri horrekin bueltan jaso ahalko da.

12.- Lan guztiak, kartel irabazleak eta aurkeztutako gainerako kartelak Basozelai Gizarte Etxean jarriko dira ikusgai, urriaren 3tik 20ra bitartean.

13.- Saritutako kartelaren egileak edozein xehetasun edo kolore aldatu beharko du, ordainsaririk jaso gabe, Epaimahaiak helburua betetzeko hobe dela irizten badio.

14.- Saritutako kartela Udalaren jabetzakoa izatera pasako da, eta berau erreproduzitzeko eta banatzeko aukera izango du, egoki iritzitako moduan eta unean.

15.- Erakusketa amaitzen denean, lehiaketara aurkeztu eta sarituak izan ez diren lanak bueltan jaso ahalko dira Basozelai Gizarte Etxean bertan, HILABETeko epean, 2025eko urriaren 24tik aurrera. Gero, Udala ez da lanak gordetzearen arduraduna izango, eta ez du materialak garraiatu, manipulatu, erakutsi, bildu edo antzekoak egiten direnean gerta daitezkeen kalteen erantzulea izango.

16.- Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek oso-osorik onartzen dituzte xedapen hauek.